

## Beira hauskorrak

**F**ikziozko kristala. Horixe bera da hiru ttakunkideon arteko lokarriaren ametsa. Fikziozkoa da gure arteko ezagutza, gure lankidetzeta. Kristal dardaratizkoak dira gure sukaldeko artotalo beteak eta irin-ogi guriak, eta milorri dultzezko makatz-opilak. Ore lotzailea da gure artean beira hauskorren zizpurua.

Halaxe ulertu diot Errori, azken entregan. *Transferminetako* besten atakatik mintzo zen hura aurreko astean. *Peppermint* berdearen olatuaren gainean susmatu ditut haren umorea bera eta humoreak eurak. Politikari gaitzesgarrien iseketa narda-mendatan kulunkan.

Bohemiako beira gardenaz egindako burbui-laren baitan irudikatzen dut Itxaro, ekisartze zoragarri gorri horietako baten baitan urtzen, Larrunetik so eta beha, bezperako ttakunkideak zer esango, hark zer esateko.

Baina, lagunak: zuekin batera, ni ere, hiruron-tzat besterik idazten ez ote gabiltzan asaldatu naiz inoiz. Guretzat bakarrik ote diren leiarrezko epistola hauek.

Halere, ez du iltzean joko hala uste duenak, ez bete-betea. Ez, nik uste. Zeren, gure bekotua ez baita mortala. Bai, nik badut eta, beste irakurle biren berri.

Gure *voyeur* partikularrak izango dira horiek, akaso; hain da-eta txikia euskaldunon artean *feedback*.

\* \* \*

Kristalezko fikzioa. Erakargarria zait leiarra, ekai eta literatura gisa. Magikoa iruditzen zait hondarra diamantezko xafla bihurtzen duen alkimia purua eta garbia. Goritasun gorenaren indar-erakustaldia da, almibar kupritsa egitea harea larriarekin.

Baina, batez ere, kristalaren soinuk liluratzen nau. Hotsak: do, re, mi, fa, sol, la, si...

Batzuetan, belarriak kilikatzen ditu; ardo onduak Borgoñako edontzi zoliari



J. I. Basterretxea

Borda

Errro

eztia xuxurlatu eta haren leiar gardena laztantzen duenean, adibidez.

Eta, inoiz, ustekabea, haiek zartatzen, belarriak; altzairuzko Aldundiaren birziklatze-upelekin topo egiten duenean, esaterako.

Oilanda-arrautzaren eskola da beira sotila, esku trebatuan baizik bizirauten eta atsegina ematen ez dakiena.

Izotza ere bada kristalezkoa. Erotismoa bera, edo aramu goiztiarraren firu hezea. Edo kateme gaztearen aho-bizar zurietan katramilatzen den ur-tanta.

\* \* \*

Izan, kristalezkoa, etorkizuna da batez ere. Eta, ez da erraza fikzioaren beirarekin ezer deskribatzea. Are gutxiago erreala bera narratzea. Zer esanik ez, arrazoiaren bidean jartzea ideiak eta ametsak.

Hiperbole absurduaren ezpata dago hor, zeren mundu guztia ez baita analogiatan zopatzekoa ezta metaforatan horditzekoa ere. Autore klasikoek eta berriagoek ohartarazi digute fikziozko kristalaren hauskortasunaz.

“Gauzen itzalak dira hitzak” zioen Demokrito zaharrak. Erreala izan daitekeenaren mamu moduko bat besterik ez da kontalariaren diskurtsoa. Laino bat, inguru bat.

“Gauzen ordezkoi iruzkinak dira berbak” Zizeron adituak. Mundua pentsagarri eta adierazgarri izateko erreminta landu eta jasoa dira eleak. Besterik ez. Ez gutxi.

“Errotuloak dira, gauzei eman eta itsasten zaizkienak; hitzak ez dira gauzak eurak” dio berriki Saramago sarituak. Perlazko lepokoa; baina, idunekoa, eta ez iduna.

Begien aurrean dugu jada uda beroko sargorien zale den hareetako sugetzarrak. Hura igaro ondoren, neguaren atariko udagoiengan, zer kolorez beztiturik etorriko da almibarrezko beira hauskorra? ■

«  
 Begien aurrean dugu jada uda beroko sargorien zale  
 den hareetako sugetzarrak. Hura igaro ondoren,  
 neguaren atariko udagoiengan, zer kolorez  
 beztiturik etorriko da almibarrezko  
 beira hauskorra?»